

Gizarte-Ekintza Elkarrizketen formakuntza-zikloa

HeziZerb elkarte egoitza, Donostia

2007 iraila - 2008 otsaila

Nori zuzendua: Erabiltzaile ezberdinei (bitarteko, komunitate-buru,...) eta ikasleei, ohiko laguntza eskaintzeko asmoekin dauden gizarte hezitzaile, gizarte langile, irakasle, osasun ordezkari, psikologo, animatzaile eta gizarte eta heziketa zerbitzuetako erabiltzaileei zuzendua.

HeziZerb elkartean, gizarte-heziketa berrikuntza eta elkartrukatzeko esperientzia bide berriak zabaltzeko egiten dugu lan. Gure ustetan teoria eta praktika oso lotuta daude eta erlazioan, irakurketa osoetan eta esperientzian oinarritutako heziketa ereduak eskaintzea beharrezkoa dela pentsatzen dugu. Honela, modulu ezberdinetan banaturiko formakuntza-ziklo hau proposatzen dugu, ordezkari eta diziplina ezberdinen artean gizarte-ekintzaren inguruan "elkarrizketan aritzeko". Hezitzaileen sare lokalak sendotzea eta gizarte-ekintzaren esparruan berrikuntza prozesuaren eta pentsamendu kritikoaren alde jokatzeko da aldi berean gure asmoa.

Zikloa moduluetan antolatuko da, guztietara modu orokorrean ala hautatzen diren etara indibidualki azaldu daitekeelarik. Aukera hau, gehieneko partaidetza ziurtatzeko zabaltzen da, saio guztietara azaldu ezin daitezkeenak gogogabetu ez daitezela. Egiaztagiriak entregatuko dira eta guztietan lan eskema parte-hartzailea bultzatuko da, eguneguneko zailtasunen arabera, praktika-elkartrukaketa funtsezkoa izango delarik.

Ikastaroek aurrera egin dezaten, gutxienez 7 pertsonak eman beharko dute izena.

Formakuntza-ziklo hau Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaren zain dago.

2007ko irailak 21-22 eta irailak 28-29

Existitzeko idatzi eta hobeto pentsatzeko idatzi: Elkarteek idatz dezaten eta egiten dutenaren itzala utz dezaten asko kosta izaten da maiz. Idazteko eta jasota uzteko modu ezberdin asko daude, eta funtsezkoa da dagokion diskurtsoa sortzeko, idazteko eta testuak moldatzeko. Idazteko oinarritzko gakoengatik inguruan hitz egingo da eta ariketak burutuko dira praktikatzeko joateko (memorien idazlana, book-ak, egiten duguna zein eratan kontatzen dugun, gure kultura elkarkorra belaunaldi berrietara nola transmititzen dugun... (20 ordu) (Dohain, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuta)

2007ko irailak 25-28

Kale Heziketaren metodologia eta gizarte arriskuan dauden gazteen inguruan ohitura egokiak: Bilera hau, LUK izeneko elkarte norvegiarrak antolatzen du Oslon, Kaleko Gizarte Hezitzaileen Nazioarteko Sarearen ekintzen alorrean. (U.E-Gazteak Ekinean Programak, diruz-lagundutako bidaia eta ikastaroa) (Plaza mugatuak, hautaketa prozesua)

2007ko urriak 18

Psikoanaliaren hastapena gizarte-ikuspuntuko batetik: Ana María D'Amato psikologo eta psikoanalistaren eskutik, psikoanaliaren oinarriak, honen oinarritzko printzipioak eta gizabanakoaren eta gizartearen ulermenaren ikuspegiak helduko zaio. Jardunaldi honek gertaera eta bineta klinikoak erabiltzeko aukera aintzakotzat hartuko du, eta interesatuei, psikoanalisi eta gizarte-lana bateratzeko foro egonkor bat proposatuko zaie. (4 ordu) (20€)

2007ko urriak 26 eta 27

Artea eta kultura gizarte-heziketa tresnak bezala: Planteamendu teoriko baten ondoren, sormen ariketen bitartez, artearen aukera ezberdinak, harreman tresna bezala eta gizabanakoaren aldaketa bezala, bata bestearen atzetik aipatuko dira. Saioa, heziketa lanean esperientzia duten bi artista gaztek animatuko dute, Alazne Berges eta Sandra Cuesta. Laurence Daguerren laguntzarekin (Hendaiako *Abbadia Adixkideak*), artearen erabileraren eredia oinarri pedagogiko bezala eta beste esperientzia batzuk ere aztertuko dira. (9 ordu) (40€)

2007ko azaroak 16

Gizarte lana Akitanian: Pessac-eko (Akitania) hezitzaile eta antropologo aditu batek, Philippe Roux, Frantziako prebentzio eta gizarte ekintzaren ereduari, azken urteetan gertatutako aldaketei eta ikusten dituzten etorkizuneko erronka eta arriskuei helduko die. Duela urteak BAB-en (Baiona-Angelu-Miarritze) lanean diharduten Veronique Larre eta Pantxikak, gizarte-politikenganako euren ikuspuntuaren inguruan, burutu behar dituzten aldaketen inguruan eta euren oinarri filosofikoetaz jardungo dute. (6 ordu) (30€)

2007ko azaroak 26-30

Nazioarteko topaketa Mexikon: ezagupenen antolaketa, kale heziketaren profesionalizatzearen erronka bat: Kaleko Gizarte Hezitzaileen Nazioarteko Sarea, elkarrekin ari da lanean topaketa honen antolakuntzan eta bertan nazioarte-mailan Mexiko DF-ko prestakuntza eta praktiken elkartrukatzeaz mintzatuko da. (+info: www.travail-de-rue.net + www.callejeros.org)

2007ko abenduak 14

Kultura sustapena eta kulturara heltzea: Abbadiako Adixkideak, Hendaiako kultura sustapeneko elkarteak, ondarearen hedapenaren inguruan eta talde ezberdinentzat erreminta pedagogikoak antolatzeko moduan, bere esperientzia azalduko du. (4 ordu) (20€)

2008ko urtarrilak 11

Mintegiaren itzultzea Mexikon kaleko Gizarte Lanaren inguruan: Kaleko Gizarte Langileen Nazioarteko Sareak antolaturiko mintegira azaltzeko aukera izan duten Taller Euskadi-ko kideek, mundu osoko hezitzaileekin elkartrukatze tailerren eta esperientzien itzultzea burutuko dute. (5 ordu) (20€)

2008ko urtarrilak 25

Gizarte-ekintzaren arriskuak eta aukerak Euskadin: Aldaika, Irse eta HeziZerb-eko kideak, praktika alorretik, gizarte-ekintzaren erronken inguruan mintzatuko dira, aldaketez beteriko orainaldi honetan. (4 ordu) (20€)

2008ko otsailak 15-16

Gizarte-heziketaren bitartekotza taldean –garai berriak, ikuspuntu berriak: Ricardo Sánchez Cano-k, talde-prozesuen hastapenei buruzko mintegi bat proposatuko du Gizarte Hezitzaileentzat. Gerturatze teoriko eta praktikoa bat –bizipenekoa. Berezko eta/edo bizikidetzako taldeen irakurketak hobetzeko, erremintak banatuko dira, testuinguru ezberdinetako bitartekotzarako. (8 ordu) (40€)

Existitzeko idatzi eta hobeto pentsatzeko idatzi <i>Jon Etxeberria</i>	2007ko irailak 21-22 eta irailak 28-29	(20 ordu) (Dohain, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuta)
Kale Heziketaren metodologia eta gizarte arriskuan dauden gazteen inguruan ohitura egokiak <i>LUK Oslo-Norvegia</i>	2007ko irailak 25-28	(U.E-Gazteak Ekinean Programak, diruz-lagundutako bidaia eta ikastaroa) (Plaza mugatuak, hautaketa prozesua)
Psikoanaliaren hastapena gizarte-ikuspuntu batetatik <i>Ana María D´amato</i>	2007ko urriak 18	(4 ordu) (20€)
Artea eta kultura gizarte-heziketa tresnak bezala <i>Alazne Berges/Sandra Cuesta/Laurence Daguerre</i>	2007ko urriak 26 eta 27	(9 ordu) (40€)
Gizarte lana Akitanian <i>Philippe Roux/José Más Veronique Larre/Pantxika Laxague</i>	2007ko azaroak 16	(6 ordu) (30€)
Nazioarteko topaketa Mexikon: ezagupenen antolaketa, kale heziketaren profesionalizatzearren erronka bat	2007ko azaroak 26-30	<u>www.travail-de-rue.net</u>
Kultura sustapena eta kulturara heltzea <i>Laurence Daguerre / Pascal Clerc</i>	2007ko abenduak 14	(4 ordu) (20€)
Mintegiaren itzultzea Mexikon kaleko Gizarte Lanaren inguruan	2008ko urtarrilak 11	(5 ordu) (20€)
Gizarte-ekintzaren arriskuak eta aukerak Euskadin <i>Aldaika / Irse / HeziZerb</i>	2008ko urtarrilak 25	(4 ordu) (20€)
Gizarte-heziketaren bitartekotza taldean –garai berriak, ikuspuntu berriak <i>Ricardo Sánchez Cano</i>	2008ko otsailak 15-16	(8 ordu) (40€)

info +: HeziZerb elkartea
(Zubiaurre 30-behea, 20013 Donostia)
hezizerb@hezizerb.net **943-326784**
www.hezizerb.net